


1. AURKEZPENA / PRESENTACIÓN	9
2. SARRERA / INTRODUCCIÓN	11
3. METODOAK / MÉTODOS	13
4. EMAITZAK / RESULTADOS	15
4.1. Heriotza-kausa guztiak / Todas las causas de defunción	15
4.2. Adin-taldeak kontuan hartuz / Por grupos de edad	16
4.2.1. Heziketa-mailaren arabera / Según el nivel de instrucción	16
4.2.2. Etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera / Según el confort de la vivienda	17
4.2.3. Talde sozioekonomikoaren arabera / Según el grupo socioeconómico.....	17
4.2.4. Lan-egoeraren arabera / Según la situación laboral	18
4.3. Heriotza-kausak direla eta / Por causas de defunción	18
4.3.1. Hiesa / Sida	18
4.3.2. Biriketako minbizia / Cáncer de pulmón.....	19
4.3.3. Bularreko minbizia / Cáncer de mama	20
4.3.4. Diabetesa / Diabetes	20
4.3.5. Kardiopatia iskemikoa / Cardiopatía isquémica	20
4.3.6. Gaixotasun zerebrobaskularrak / Enfermedades cerebrovasculares	21
4.3.7. Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa / Enfermedad pulmonar obstructiva crónica	22
4.3.8. Zirrosia / Cirrosis	22
4.3.9. Trafikoko istripuak / Accidentes de tráfico	23
4.3.10. Gaindosia / Sobredosis	24
4.3.11. Suizidioa / Suicidio	24
4.4. Heriotza-kausen garrantzi erlatiboa / Importancia relativa de las causas de defunción	25
4.4.1. 20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumezkoak / Mujeres de 20 a 64 años	26
4.4.1.1. Desberdintasunak hilkortasunean heziketa-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el nivel de instrucción	26
4.4.1.2. Desberdintasunak hilkortasunean etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el confort de la vivienda	26
4.4.2. 20 urtetik 64 urtera bitarteko gizonezkoak / Varones de 20 a 64 años	27
4.4.2.1. Desberdintasunak hilkortasunean heziketa-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el nivel de instrucción.....	27
4.4.2.2. Desberdintasunak hilkortasunean etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el confort de la vivienda	27
4.4.3. 65 urte eta hortik gorako emakumezkoak / Mujeres de 65 y más años	28
4.4.3.1. Desberdintasunak hilkortasunean heziketa-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el nivel de instrucción.....	28
4.4.3.2. Desberdintasunak hilkortasunean etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el confort de la vivienda	28
4.4.4. 65 urte eta hortik gorako gizonezkoak / Varones de 65 y más años	29
4.4.4.1. Desberdintasunak hilkortasunean heziketa-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el nivel de instrucción	29
4.4.4.2. Desberdintasunak hilkortasunean etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera / Desigualdades en la mortalidad según el confort de la vivienda	29
5. BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA	31
6. TAULAK / TABLAS	33
7. IRUDIAK / FIGURAS	93
A. ERANSKINA / ANEXO A.....	137
B. ERANSKINA / ANEXO B.....	143
C. ERANSKINA / ANEXO C	161
D. ERANSKINA / ANEXO D	179
E. ERANSKINA / ANEXO E	197



- Desigualdades sociales en la mortalidad: Mortalidad y posición socioeconómica en la CAPV, 1996-2001
- *Desberdintasun sozialak hilkortasunean: Hilkortasuna eta maila sozioekonomikoa EAEn, 1996-2001*

**Desberdintasun sozialak hilkortasunean:
hilkortasuna eta maila sozioekonomikoa
EAEn, 1996-2001**

Desigualdades sociales en la mortalidad:
mortalidad y posición socioeconómica
en la CAPV, 1996-2001

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

Desberdintasun sozialak hilkortasunean : hilkortasuna eta maila sozioekonomikoa EAEn, 1996-2001 / [azterlanaren zuzendaritza eta errealizazioa, Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua, Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritza, Osasun Saila] = Desigualdades sociales en la mortalidad : mortalidad y posición socioeconómica en la CAPV, 1996-2001 / [dirección y realización del estudio, Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria, Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria, Departamento de Sanidad. – 1. argit. = 1ª ed. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

p. ; cm.

ISBN 84-457-2400-2

1. Mortalidad-Euskadi-Estadísticas. I. Euskadi. Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria. II. Título (castellano).

312.2(460.15)

Azterlanaren zuzendaritza eta errealizazioa:

- Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko Zerbitzua
Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila

Laguntzaileak:

- Erregistroko eta Informazio Sanitarioko Zerbitzua
Plangintza eta Antolamendu Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila
- EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundea

Dirección y realización del estudio:

- Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria
Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria. Departamento de Sanidad

Colaboración:

- Servicio de Registros e Información Sanitaria
Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria. Departamento de Sanidad
- EUSTAT-Instituto Vasco de Estadística

Argitaraldia / Edición	1.a 2005eko azaroa 1.ª noviembre de 2005
Ale-kopurua / Tirada	1.000 ale 1.000 ejemplares
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Osasun Saila / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Departamento de Sanidad
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea: Edita:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa / Fotocomposición	EPS - Eusko Printing Service, S.L.
Inprimaketa / Impresión:	Gráficas Santamaría, S.A.
ISBN:	84-457-2400-2
L.G. / D.L.:	VI-408/05

1. AURKEZPENA

Atentzio sanitarioak osasunean daukan eragina zalantzarik gabekoa da. Gure erkidegoak kalitatezko osasun-sistema eta estaldura unibertsala dauka, gure herritarren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko laguntza nabarmena ematen ari dena. Hala ere, pertsonen eta herrien osasuna ez dago atentzio sanitarioaren esku bakarrik. Horrez gain, faktore biologikoez (esaterako, herentzia genetikoa, sexua edo adina), bizimoduez, ingurumen fisikoa eta sozialak, pertsonok eskala sozialean daukagun mailak gure osasunean zeregin erabakigarria daukate. Eta eragin hori osasunean agertzen diren desberdintasun sozialean islatzen da.

Mundu-mailan, herrialde ezberdinen artean, haien pobrezia-mailaren arabera, desberdintasun handiak daude. Baina, horrez gain, baita herrialde industrializatuetan ere, bizitzaren baldintza sozioekonomikoen arabera, pertsonen osasuna ezberdina da. Osasunean dauden desberdintasun sozialak agerian geratu dira osasunaren zenbait dimentsiotan eta neurtuak izan diren herrialde guztietan. Hala eta guztiz ere, desberdintasun horietako asko saihestu ahal dira. Gainera, osasunean agertzen diren desberdintasun sozialak murriztea, biztanleria osoaren osasuna hobetzeko baliabide eraginkor bihurtu daiteke. Hori dela eta, Osasunaren Mundu Erakundeak nahiz herrialde industrializatutako gobernu askok osasunean ekitatea haien agenda politikoen gune gisa jarri dute.

Gure Erkidegoak, Espainiako estatuan aitzindaria, ekitate-nahi hori politika zehatz bihurtu du. 2002-2010 Osasun Planak bi helburu nagusi ezarri zitzaizkion bere bu-ruari: batetik, gure biztanleen osasuna hobetzea, bizitzaren iraupena eta bizi osasuntsuaren urte-kopurua gehitzen; eta bestetik, egoera ahulagoan dauden pertsonen osasuna hobetzea eta osasunean dauden desberdintasun sozialak murriztea. Horretarako, beste ekintza batzuen artean, Plan horrek osasunean dauden desberdintasun sozialen eboluzioa aztertzea eta zaintzea barne hartzen du. Eta dokumentu hau, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) eta Osasun Sailaren arteko lankidetzahaleginaren fruitua, norabide hori daukan aurrera pauso bat da.

Gabriel M. Inclán Iribar
OSASUN SAILBURUA

1. PRESENTACIÓN

Es indudable la influencia de la atención sanitaria sobre la salud. Nuestra comunidad se ha dotado de un sistema sanitario de calidad, de cobertura universal, que está contribuyendo de manera muy relevante a la mejora de la salud y la calidad de vida de nuestra población. Sin embargo, la salud de las personas y de las poblaciones no sólo depende de su atención sanitaria. Además de los factores biológicos (como la herencia genética, el sexo o la edad), los estilos de vida, o el medio ambiente físico y social, la posición que las personas ocupamos en la escala social juega un papel determinante en nuestra salud. Y esta influencia se refleja en la existencia de desigualdades sociales en la salud.

En el ámbito mundial, existen grandes diferencias en la salud entre distintos países, en función de su nivel de pobreza. Pero además, incluso dentro de los países industrializados, la salud de las personas es distinta según las condiciones socioeconómicas de vida. Las desigualdades sociales en salud se han puesto de manifiesto para las diversas dimensiones de la salud y en todos los países en los que se han medido. Sin embargo, gran parte de esas desigualdades son evitables. Además, la reducción de las desigualdades sociales en la salud ofrece un medio eficiente para la mejora de la salud del conjunto de una población. De ahí que tanto la Organización Mundial de la Salud como los gobiernos de muchos países industrializados hayan situado la equidad en salud en el centro de sus respectivas agendas políticas.

Nuestra Comunidad, de manera pionera en el Estado Español, ha traducido ese anhelo de equidad en políticas concretas. El Plan de Salud 2002-2010 se fijó dos grandes metas: Mejorar la salud de nuestra población, aumentando la duración de la vida y el número de años de vida saludable, y mejorar la salud de las personas más desfavorecidas y disminuir las desigualdades sociales de salud. Para ello, entre otras acciones, este Plan incluye el estudio y la vigilancia de la evolución de las desigualdades sociales en la salud. Y este documento, fruto de un esfuerzo de colaboración entre el Instituto Vasco de Estadística/Eustat y el Departamento de Sanidad, es un paso adelante en esa dirección.

Gabriel M. Inclán Iribar
CONSEJERO DE SANIDAD

2. SARRERA

Osasunean desberdintasun sozialak badirela gauza ezaguna da. Egoera ahulagoan dauden pertsonen gaixotasun eta minusbalotasun gehiago pairatzen dituzte, eta aberatsagoak diren beste pertsonen baino denbora gutxiago bizi dira. Osasunean dauden desberdintasun sozialak agerian jarri dira, zenbait adierazle sozial erabiliz, osasunaren dimentsio ezberdinak aztertu direnean, eta aztertu diren herrialde guztietan gertatu da hori¹. Hala ere, desberdintasunen magnitudea aldatu egiten da herrialdeen artean eta denboran; eta horrek, desberdintasun asko saihestu ahal direla adierazten du.

Osasunean dauden desberdintasun sozialei buruz hitz egiten dugunean, desabantaila sozialaren maila ezberdinak dituzten talde sozialen artean agertzen diren ezberdintasun sistematikoak adierazi nahi ditugu, hau da, haien baldintza sozioekonomikoa, generoa, arlo geografikoa eta abar direla-eta hierarkia sozialean maila berezi bat daukatenak. Desberdintasunok, gainera, egoera ahulagoan daudenak urrakortasun-maila handiagoan jartzen dituzte, desabantaila sozialaren eraginei dagokinez². Osasunean dauden desberdintasun sozialen ezaugarrietako bat beren mailaz mailako izaera da. Hau da, behartsuagoak osasun txarragoa dutenak izateaz gain, erasan-gradiente bat existitzen da; beraz, osasunak txarrera egiten du hierarkia sozialean behera egiten dugun heinean³. Horren ondorioz, osasunean dauden desberdintasun sozialek egoera ahulagoan dauden pertsonengan ez ezik, gizarte osoarengan ere eragina daukate.

Osasunean dauden desberdintasun sozialen fenomenoari emandako garrantzia gorakorrek herrialde industrializatuetan osasun-politiken funtsezko alderdi bihurtu ditu. EAEn, 2002-2010 Osasun Planak osasunean dauden desberdintasun sozialak lehentasunezko arlo bat bezala aipatu zituen⁴. Planaren xede nagusietako bat hauxe da: “Egoera ahulagoan dauden pertsonen osasuna hobetzea eta osasunean dauden desberdintasun sozialak murriztea”. Bere ekintzen artean, bestek beste, honako hauek daude: batetik, osasunean dauden desberdintasunen monitorizazioa, informazio-sistema sanitarioaren garapenaren bitartez; eta bestetik, osasun-mailaren aldizkako estatistikak egitea, klase sozialaren arabera. Eta testuinguru horretan kokatzen da lan hau. Eskakizun horri erantzuteko, nola 2003 eta 2004 urteetako Estatistika Programak, hala 2005-2008 aldirako Euskal Estatistika Planak hilkortasunean eta erikortasunean desberdintasun sozialak aztertzeke eta monitorizatzeko eragiketa estatistikoa mardulak sartu dituzte. Dokumentu honek, lehenengo aldiz, hilkortasunean desberdintasun sozialei buruzko estatistikaren emaitzak aurkezten ditu, maila sozioekonomikoaren eta hilkortasunaren adierazle artako erlazioa deskribatuz.

EAEn osasunean dauden desberdintasun sozialen izaerari buruzko ezagutza erabilgarria, batez ere, Osasun

2. INTRODUCCIÓN

La existencia de desigualdades sociales en la salud es bien conocida. Las personas más desfavorecidas padecen más enfermedades y mayor discapacidad, y viven menos tiempo que las más ricas. Las desigualdades sociales en salud se han evidenciado al estudiar las diferentes dimensiones de la salud, utilizando diversos indicadores sociales, y en todos los países estudiados¹. Sin embargo, la magnitud de las desigualdades varía entre los países y en el tiempo, lo que indica que gran parte de esas desigualdades pueden evitarse.

Al hablar de desigualdades sociales en salud nos referimos a las diferencias sistemáticas en la salud entre grupos sociales con distintos niveles de desventaja social, es decir con una posición diferenciada en la jerarquía social por su condición socioeconómica, género, área geográfica, etc. Las desigualdades sitúan además a los grupos más desfavorecidos en una posición de mayor vulnerabilidad respecto a los efectos de la desventaja social². Una de las características de las desigualdades sociales en salud es su carácter gradual. Es decir que no sólo los más pobres tienen una peor salud sino que existe un gradiente de afectación, de manera que la salud empeora a medida que descendemos en la jerarquía social³. De ahí que las desigualdades sociales en salud no sólo afecten a los grupos más desfavorecidos, sino a toda la sociedad en su conjunto.

La importancia creciente dada al fenómeno de las desigualdades sociales en salud las ha convertido en un aspecto clave de las políticas de salud en los países industrializados. En la CAPV, el Plan de Salud 2002-2010 incluyó las desigualdades sociales en salud como una de sus áreas prioritarias⁴. Una de las dos grandes metas del Plan es “Mejorar la salud de las personas más desfavorecidas y disminuir las desigualdades sociales en salud”. Entre sus acciones se incluyen, entre otras, la monitorización de las desigualdades en salud mediante el desarrollo de los sistemas de información sanitaria y la producción de estadísticas periódicas del nivel de salud según la clase social. Y es en este contexto en el que se incluye este trabajo. Para dar respuesta a ese requerimiento, tanto los Programas Estadísticos de 2003 y 2004, y el Plan Vasco de Estadística 2005-2008 han incluido sendas operaciones estadísticas para estudiar y monitorizar las desigualdades sociales en la mortalidad y en la morbilidad. Este documento presenta por primera vez los resultados de la estadística de desigualdades sociales en la mortalidad, describiendo la relación entre los indicadores de posición socioeconómica y la mortalidad.

El conocimiento disponible sobre la naturaleza de las desigualdades sociales en salud en la CAPV se basa

Inkestako emaitzetan oinarritzen da, eta hautemandako erikortasunari eta bizi-azturei buruzkoa da⁵⁻⁷. Hilkortasunari dagokionez, eta gure erkidegoko osasunaren berri izateko informazio-iturri gisa garrantzitsua izan arren, heriotzekin jasotako datu sozioekonomikoen zehaztasun-maila baxuak desberdintasunen azterketan erabiltzea mugatu du. Muga horiek gainditzeko, bi bide osagarri planteatzen dira. Lehenengo bidean egoitzarlaroaren adierazle sozioekonomikoak erabiltzen dira. Datu sozioekonomikoak eta hilkortasunari buruzkoak zentsu-sekzioka izateak, egoitza-tokiaren ezaugarri sozioekonomikoen arabera hilkortasuna deskribatzeko aukera eman du^{4,8}. Bigarren bideak, berriz, datubaseen loturen bitartez pertsonen datu sozioekonomikoak lortzen ditu. Jarraian aurkeztuko diren datuen kasua da, heriotzen eta EAeko biztanleria-erregistroko datuen arteko loturaren emaitza baita. Modu horretan, EAEn bizi diren biztanleen hilkortasunean desberdintasun sozioekonomikoei buruzko dokumentu honetan aurkeztu diren emaitzak atera dira, hilkortasun totala eta heriotza-kausa nagusiak kontuan hartuz.

principalmente en los resultados de la Encuesta de Salud, y se refiere a la morbilidad percibida y a los hábitos de vida⁵⁻⁷. En lo que respecta a la mortalidad, y a pesar de su importancia como fuente de información para el conocimiento de la salud de nuestra comunidad, la baja exhaustividad de los datos socioeconómicos recogidos con las defunciones ha limitado su uso en el estudio de las desigualdades. Para superar estas limitaciones, se plantean dos caminos complementarios. En el primero se utilizan indicadores socioeconómicos del área de residencia. La disponibilidad de datos de mortalidad y socioeconómicos por sección censal ha permitido describir las desigualdades en la mortalidad según las características socioeconómicas del lugar de residencia^{4,8}. El segundo pasa por conseguir la información socioeconómica de las personas a través del enlace de bases de datos. Es el caso de los resultados que ahora se presentan, fruto del enlace entre los datos de las defunciones y el registro de población de la CAPV. De esta manera se han producido los resultados que se presentan en este documento sobre las desigualdades socioeconómicas en la mortalidad de la población residente en la CAPV, para la mortalidad total y para las principales causas de muerte.

3. METODOAK

Biztanleria-erregistroarekin bizi-erregistroen loturan oinarritutako luzetarako hilkortasunari buruzko azterketa bat egin zen. EAEn bizi ziren 20 urte eta hortik gorako pertsonen artean gertatutako hilkortasunaren eta haien ezaugarri sozioekonomikoen arteko elkartzea aztertu zen. EAEn bizi ziren 20 urte eta hortik gorako pertsonen artean gertatutako heriotzak barne hartu ziren, 1996-7-1 eta 2001-6-30, biak barne, arteko tartea kontuan hartuz.

Heriotzei buruzko datuak, Euskal Estatistikako Erakundeak (Eustat) Estatistikako Institutu Nazionalarekin lankidetzan egindako EAeko Heriotzen Estatistikatik lortu ziren. Heriotzen buletin estatistikoen datuez gain, estatistika horrek Osasun Saileko Hilkortasun Erregistroaren taldeak egindako heriotzen oinarritzko kausaren kodeketa bildu zuen.

Ezaugarri sozioekonomikoei buruzko datuak, Eustaten Biztanleria Erregistrotik atera ziren. Horretarako, biztanleria-erregistroan dauden pertsonak heriotzei buruzko datuekin elkartu ziren. Lotura hori, aldagai nagusizat honako hauek erabiliz egin zen: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, izena eta abizenak, eta jaioteguna. Horien gehigarri gisa, sexua eta biztanleen bizilekuaren helbidea erabili ziren. Aztertutako tartean erregistratutako heriotzak 90.240 izan ziren guztira; horietatik 83.754 (%93) elkartu ziren, eta 83.209, hogeitau urte eta hortik gorako pertsoneri dagozkie. Loturaren kalitatea antzekoa izan zen bi sexuetan eta adin-taldearen, lurralde historikoaren, hildako urtearen eta aztertutako aldagai sozioekonomikoen kategorien arabera. Tasak kalkulatzeko, pertsonako urte-kopurua 1996ko maiatzaren 1ean zegoen biztanleria bost bider biderkatuz estimatu zen (1996ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika).

Aزتutako aldagaiak honako hauek izan ziren: sexua, adina, heziketa-maila, lanbidean oinarritutako talde sozioekonomikoa, lan-egoera, etxebizitzaren erosotasun-maila eta heriotzaren oinarritzko kausa. Heziketa-maila egindako eta momentu horretan egiten ari ziren ikasketen mailarik altuena da. Talde sozioekonomikoak biztanleria sailkatzen du datuei buruzko informazioa erabiliz: lanbidea, lanbide-egoera, jarduerar- arloa eta lan-egoera. Erretirata edo langabezian dauden pertsonentzen kasuan, azken lanbidea aipatzen da⁹. Lan-egoeran edo jarduerarekin zerikusia duten datuak aipatzean honako hauek izan ziren kontuan hartu zirenak: lanean, langabezian eta ordaindu gabeko lan egiten edo inaktibo zeuden pertsonen kategoriak. Etxebizitzaren erosotasun-maila Eustatek garatutako indize bat da. Indize horrek, etxebizitzaren tamainari, pilaketa-mailari, etxebizitzaren erosotasunari eta instalazioei buruzko informazioa¹⁰ bateratzen du. Heriotza-kausak, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenarekin (1996-1998 urteetarako bederatzigarren berrikuspena eta 1999-2001 urteetarako hamargarren

3. MÉTODOS

Se realizó un estudio de mortalidad longitudinal basado en el enlace de los registros vitales con el registro de población. Se estudió la asociación entre la mortalidad ocurrida entre las personas de 20 y más años residentes en la CAPV y sus características socioeconómicas. Se incluyeron las defunciones ocurridas en el periodo comprendido entre el 1-7-1996 y el 30-6-2001 ambos inclusive.

Los datos sobre las defunciones se obtuvieron de la Estadística de Defunciones de la CAPV realizada por el Instituto Vasco de Estadística (Eustat) en colaboración con el Instituto Nacional de Estadística. Además de los datos de los Boletines Estadísticos de Defunción, esa Estadística recoge la codificación de la causa básica de la defunción realizada por el equipo del Registro de Mortalidad del Departamento de Sanidad.

Los datos sobre las características socioeconómicas se obtuvieron del Registro de Población de Eustat. Para ello se enlazaron los datos sobre las defunciones con los de las personas incluidas en el Registro de Población. El enlace se realizó utilizando como variables principales el número del documento nacional de identidad, el nombre y apellidos, y la fecha de nacimiento. De forma adicional, se utilizaron el sexo y la dirección del domicilio de residencia. Del total de 90.240 defunciones registradas en el periodo de estudio, se enlazaron 83.754 (93%), de las que 83.209 correspondieron a personas de 20 y más años de edad. La calidad del enlace fue similar en ambos sexos y según el grupo de edad, el territorio histórico, el año de la defunción y las categorías de las variables socioeconómicas estudiadas. Para el cálculo de las tasas, el número de años-persona fue estimado multiplicando por cinco la población a 1 de mayo de 1996 (Estadística de Población y Viviendas de 1996).

Las variables de estudio incluyeron el sexo, la edad, el nivel de instrucción, el grupo socioeconómico basado en la ocupación, la situación laboral, el grado de confort de la vivienda y la causa básica de defunción. El nivel de instrucción es el grado más elevado de estudios realizados o en curso. El grupo socioeconómico clasifica a la población utilizando información de la ocupación, la situación profesional, la rama de actividad y la situación laboral. Para las personas jubiladas o en situación de desempleo se refiere a la última ocupación⁹. En la situación laboral o relación con la actividad se consideraron las categorías de personas ocupadas, en desempleo y sin trabajo remunerado o inactivas. El grado de confort de la vivienda es un índice desarrollado por el Eustat, que combina información sobre el tamaño de la vivienda, el grado de hacinamiento, y las comodidades e instalaciones de la vivienda¹⁰. La causa de defunción fue codificada con la Clasificación Internacional de Enfermedades (novena revisión para los años 1996-1998 y décima revisión para los años 1999-2001), utilizando la lista reducida diseñada para analizar conjuntamente las

berrikuspena) kodetu zen, bederatzigarren eta hamargarren bertsioekin sailkatutako heriotzak batera aztertzeo diseinatu zen zerrenda murriztua erabiliz¹¹.

Azterketa, bi sexuak eta bi adin-talde nagusiak (20-64 urte, 65 urte eta gehiago) bereiziz egin zen. Heriotza-kausak guztientzat eta sexu eta adin-talde bakoitzaren barruan sarrien gertatzen ziren 16 kausak kontuan hartuz desberdintasun sozialak aztertu ziren (1. eta 2. irudiak, A1-A4 taulak A eranskinean). Aztertu beharreko heriotza-kausak aukeratzeko orduan, interpretatzeko zailagoak diren entitate anizkoitzei buruzkoak baztertu egin ziren (esate baterako, bihotzaren beste gaixotasun batzuk), sarriago agertu arren. Urteko tasa gordinak, eta estandarizatuak kalkulatu ziren, adina kontuan hartuz metodo zuzenaren bidez¹², eta 1996ko EAEko biztanleria erreferentziatzen hartu zen.

Hilkortasunean dauden desberdintasunen garrantzia bi modu osagarritan neurtu zen¹³. Lehenengo eta behin, Poissonen erregresio-eredua erabiliz kategoria sozio-ekonomiko bakoitzarentzat adinaren arabera doitutako hilkortasun-tasen arrazoia estimatu zen, erreferentziatzen egoera hoberenean dagoen taldeari zegokion kategoria hartuz. Hilkortasun-tasen arrazoia irudietan gehiegizko hilkortasun gisa aurkezten da, tasen arrazoiaren balioari 1 kenduz kalkulatu dena. Horrela bada, 1,98ko tasen arrazoi batentzat, gehiegizko hilkortasuna 0,98koa edo %98koa izango da. Desberdintasunen neurri erlatibo horrek, erreferentzia-kategoriari dagokionez talde batean hilkortasuna zenbat aldiz altuagoa izan zen baloratzen du. Hala ere, ez dute talde bakoitzaren tamaina kontuan hartzen. Hori dela eta, gainera, desberdintasunak bigarren metodo bat erabiliz baloratu ziren, hilkortasunean desberdintasunen eragina estimatuz. Horretarako, eta alde zuzenetik doitutako erregresio-ereduak erabiliz, desberdintasunei dagozkien hilkortasuna estimatu egin zen, hau da, aztertutako tartean saihestuko ziratekeen heriotza-kopurua, egoera hoberenean dagoenaren hilkortasun berbera talde guztiek izango balute. Bigarren neurri horrek, osasun publikoaren ikuspuntutik, modu egokiago batean islatzen du desberdintasunen garrantzia, ezaugarri sozioekonomiko eta heriotza-kausaren arabera.

defunciones clasificadas con las versiones novena y décima¹¹.

Se realizó el análisis distinguiendo ambos sexos y dos grandes grupos de edad (20-64 años, 65 y más años). Se estudiaron las desigualdades socioeconómicas para el conjunto de causas de muerte y por las 16 causas más frecuentes de defunción dentro de cada grupo de sexo y edad (figuras 1 y 2, tablas A1-A4 en el Anexo A). A la hora de seleccionar las causas de defunción a estudiar, se excluyeron aquellas que siendo más frecuentes se refieren a entidades múltiples, de más difícil interpretación (por ejemplo, Otras enfermedades del corazón). Se calcularon las tasas brutas anuales, y estandarizadas por edad por el método directo¹², tomando como referencia la población de la CAPV de 1996.

La magnitud de las desigualdades en la mortalidad se midió de dos maneras complementarias¹³. En primer lugar, utilizando el modelo de regresión de Poisson, se estimó la razón de tasas de mortalidad ajustada por edad para categoría socioeconómica, tomando como referencia la categoría correspondiente al grupo más favorecido. La razón de tasas de mortalidad es presentada en las figuras como exceso de mortalidad, que se calcula restando 1 del valor de la razón de tasas. Así, para una razón de tasas de 1,98, el exceso de mortalidad será de 0,98 ó de un 98%. Esta medida relativa de las desigualdades valora cuántas veces mayor fue la mortalidad en un grupo respecto a la categoría de referencia. Sin embargo, no tiene en cuenta el tamaño de cada grupo. De ahí que, además, las desigualdades se valoraran por un segundo método, estimando su impacto en la mortalidad. Para ello, y utilizando los modelos de regresión previamente ajustados, se estimó la mortalidad atribuible a las desigualdades, es decir, el número de defunciones que se hubieran evitado durante el período de estudio si todos los grupos hubieran sufrido la misma mortalidad que el más favorecido. Esta segunda medida refleja de forma más adecuada, desde un punto de vista de salud pública, la importancia de las desigualdades según las características socioeconómicas y las causas de defunción.

4. RESULTADOS

4.1. Heriotza-kausa guztiak

Biztanleria-erregistroarekin lotutako heriotza guztietatik, 44.530 eta 38.679, hoguei urte eta hortik gorako gizonezkoei eta emakumezkoei dagozkie, hurrenez hurren. Hilkortasunak gora egiten zuen adinak gora egin ahala eta gizonezkoetan emakumezkoetan baino altuagoa izan zen beti, bizitzako azken urteetan izan ezik. Hilkortasuna gizonezkoetan emakumezkoetan baino bi-hiru bider altuagoa izan zen adin-talde guztietan (3. irudia).

1etik 7rako taulek eta 4tik 7rako irudiek hilkortasunean dauden desberdintasun sozioekonomikoak erakusten dituzte, heriotza-kausa guztiak kontuan hartuz. 20 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonen artean, desberdintasun horiek gizonezkoetan emakumezkoetan baino handiagoak izan ziren, eta sexuaren arabera eredu ezberdina agertu zuten. Gizonezkoetan, hilkortasunak gradiente sozioekonomiko argia jarraitu zuen aztertutako aldagai guztietan (5. irudia). Hilkortasuna kanpoko kategorietan argi eta garbi ezberdina izateaz gain, hilkortasunak gora egiten zuen kategoría sozioekonomikoak behera egin ahala. Titulazio akademikorik gabeko pertsonen hilkortasuna unibertsitateko ikasketak zituzten pertsonena baino %88 altuagoa izan zen; kualifikazio gabeko esku-langileetan, zuzendari eta goi-mailako tituludunena baino %68 altuagoa; erosotasun gutxiko etxebizitzetan bizi zirenetan, erosotasun altukoetan bizi zirenak baino %117 altuagoa izan zen; eta langabetuek zein ez-aktiboek lanean zeudenak baino bi aldiz altuagoa zen hilkortasuna erakusten zuten.

20 urtetik 64 urtera bitarteko emakumezkoetan, gradiente sozioekonomikoa heziketa-maila eta etxebizitzaren erosotasun-mailaren aldekoa izan zen nabarmenki. Ez zen ezberdintasun esanguratsurik ikusi talde sozioekonomikoa kontuan hartu zenean. Ezberdintasunak handiagoak izan ziren etxebizitzaren erosotasuna azertu zenean; hortaz, erosotasun gutxiko etxebizitzetan bizi ziren emakumezkoek erosotasun altukoetan bizi zirenak baino %53ko hilkortasuna altuagoa izan zuten. Ezberdintasun hori, emakumezko langabetuak etxetik kanpo lan egiten zuten emakumezkoetatik banatzen zituenak baino zertxobait altuagoa izan zen (%45).

64 urtetik gorako pertsonen desberdintasunak sexu bereko gazteagoen antzeko eredua jarraitu zuten; ezberdintasunen garrantzia bi sexuetan antzekoa eta gazteagoena baino baxuagoa izan arren. Gizonezkoen artean, aztertutako hiru ezaugarri sozioekonomikoetan gradiente bat ikusi zen eta ezberdintasunik handienak etxebizitzaren erosotasun-mailaren araberrako hilkortasunean gertatu zirela ikusi zen, %29ra artekoak izan baitziren. Emakumezkoen artean, gradiente argia ikusi zen hilkortasunean heziketa-mailaren eta etxebizitzaren erosotasun-maila kontuan hartu zenean, azken aldagai horretan %25eko gehieneko ezberdintasunarekin. Talde sozioekonomikoari dagokionez, ezberdintasun esanguratsuak esku-lanbideak eta bestelakoak bereiztean zeudela ikusi zen.

4. EMAITZAK

4.1. Todas las causas de defunción

Del total de defunciones enlazadas con el registro de población, 44.530 y 38.679 correspondieron a los varones y las mujeres de 20 y más años de edad respectivamente. La mortalidad aumentaba con la edad y fue siempre claramente mayor en los varones que en las mujeres: a excepción de los últimos años de la vida, la mortalidad en los varones fue de dos a tres veces mayor que en las mujeres en todos los grupos de edad (figura 3).

Las tablas 1 a 7 y las figuras 4 a 7 muestran las desigualdades socioeconómicas en la mortalidad por todas las causas de defunción. Entre las personas de 20 a 64 años, esas desigualdades fueron de mayor magnitud en los varones que en las mujeres, y mostraron un patrón distinto según el sexo. En los varones la mortalidad siguió un claro gradiente socioeconómico en todas las variables estudiadas (figura 5). La mortalidad no sólo fue claramente distinta entre las categorías extremas, sino que además la mortalidad aumentaba a medida que se descendía en la categoría socioeconómica. La mortalidad en las personas sin titulación académica fue un 88% mayor que en las universitarias; en los trabajadores manuales no cualificados un 68% mayor a la de los directivos y titulados superiores; en los que vivían en viviendas de bajo confort un 117% mayor que en los de confort alto; y tanto los parados como los inactivos mostraban una mortalidad dos veces mayor que los ocupados.

Entre las mujeres de 20 a 64 años, el gradiente socioeconómico fue evidente para el nivel de instrucción y el confort de la vivienda. No se observaron diferencias significativas según el grupo socio-económico. Las diferencias fueron mayores según el confort de la vivienda, de manera que las mujeres que vivían en viviendas de confort bajo tuvieron una mortalidad un 53% mayor a las de confort alto. Esa diferencia fue algo mayor a la que separaba a las mujeres desempleadas de las ocupadas fuera del hogar (45%).

Las desigualdades en las personas mayores de 64 años siguieron el mismo patrón que en las más jóvenes de su mismo sexo, si bien la magnitud de las diferencias fue similar en ambos sexos y menor a la de las más jóvenes. Entre los varones, se observó un gradiente en las tres características socioeconómicas estudiadas y las mayores diferencias se dieron en la mortalidad según el confort de la vivienda, que llegaron a ser de hasta un 29%. Entre las mujeres, se observó un claro gradiente en la mortalidad según el nivel de instrucción y el confort de la vivienda, con una diferencia máxima en esta última variable del 25%. En lo que respecta al grupo socio-económico, las diferencias significativas se observaron al distinguir las ocupaciones manuales de las no manuales.

Aldez aurretik deskribatutakoa, hilkortasunean dauden ezberdintasunei dagokie. Osasun-plangintzarako garrantzitsuagoa den ikuspuntu osagarria, desberdintasunei egotzi ahal zaion gehiegizko hilkortasunak dakar, hau da, egoerarik hoberenean dagoenaren hilkortasun berbera talde guztiek eduki balute gertatuko ez zatekeen hilkortasuna (8. taula). Beraz, pertsona guztiek unibertsitateko tituludunen hilkortasun berbera izan balute heriotza guztien %15,8 saihestu izango zatekeen. Proporzio hori %17,0koa izan zen gizonezkoetan eta %14,3koa emakumezkoetan.

20 urtetik 64 urtera bitarteko gizonezkoetan, heriotzen %13 eta %34 artean desberdintasunei egotzi zitzaizkien. 20 urtetik 64 urtera bitarteko gizonezko guztiek unibertsitateko tituludunen hilkortasuna izan balute, heriotzen %34,4 saihestu izango zatekeen. Adin horretako emakumezkoen kasuan, egotz daitekeen hilkortasuna talde sozioekonomikoaren %1,3 eta etxebizitzaren erosotasun-mailaren %13,4 artean ibili zen; heziketa-mailak, ostera, %10,1a izan zuen. 64 urtetik gorako pertsonetan, heziketa-mailari egotzitako proportzioa emakumezkoetan (%14,9) gizonezkoetan (%11,1) baino altuagoa izan zen. Azken hauetan, egotz daitekeen hilkortasunaren proportzioak etxebizitzaren erosotasunak (%11,7) eta talde sozioekonomikoak (%10,1) izandakoaren antzeko garrantzia izan zuen. 64 urtetik gorako emakumezkoen artean, berriz, talde sozioekonomikoari eta etxebizitzaren erosotasunari egotz daitekeen hilkortasuna heziketa-mailari egotzitakoa baino nabarmenki baxuagoa izan zen.

4.2. Adin-taldeak kontuan hartuz

Gorago desberdintasun sozioekonomikoak aztertu dira, 20 urtetik 64 urtera bitarteko pertsonak 65 urte eta hortik goragoko pertsonak bereiziz. Hala eta guztiz ere, bi adin-talde handi horien barruan, desberdintasunen garrantzia aldatu egiten da adinaren arabera (9-16 taulak eta 8-15 irudiak).

4.2.1. Heziketa-mailaren arabera

Emakumezkoetan, heziketa-mailaren arabera hilkortasunean gertatutako ezberdintasunik handienak 20 urtetik 34 urtera bitartekoetan ikusi ziren. Horietan, hilkortasunak pixkanaka-pixkanaka gora egiten zuen heziketa-mailak behera egin ahala, bereziki, ikasketarik gabeko emakumezkoetan, unibertsitateko ikasketan zituzten emakumezkoetan baino 8,1 bider altuagoa zelako (9. taula eta 8. irudia). Hilkortasunaren eta heziketa-mailaren arteko mailaz mailako erlazioaren eredua nabaria zen 64 urtetik goragokoetan ere, ikasketarik gabeko emakumezkoen gehiegizko hilkortasuna unibertsitateko ikasketak dituztenekiko %36koa izan zelako 65 urtetik 74 urtera bitartekoetan eta %20koa 75 urte eta hortik gorakoetan. Hala ere, beste adin-taldeetan ez zen heziketa-mailaren arabera hilkortasun-gradiente hori nabarmendu. 25 urtetik 44 urtera bitartekoetan, ikasketarik ez zuten hilkortasuna unibertsitateko

Lo descrito anteriormente se refiere a las diferencias relativas en la mortalidad. Una visión complementaria, de mayor relevancia para la planificación sanitaria, la ofrece la mortalidad en exceso atribuible a las desigualdades, es decir aquella mortalidad que no se habría producido si todos los grupos hubieran tenido la misma mortalidad que el más favorecido (tabla 8). Así, si todas las personas hubieran tenido la misma mortalidad que las tituladas universitarias, se habrían evitado un 15,8% del total de defunciones. Esa proporción fue del 17,0% para los varones y del 14,3% para las mujeres.

Entre los varones de 20 a 64 años, entre el 13 y el 34% de las muertes fueron atribuibles a las desigualdades. Si todos los varones de 20 a 64 años hubieran tenido la mortalidad de los titulados universitarios, se habrían evitado un 34,4% de las defunciones. En el caso de las mujeres de esa edad, la mortalidad atribuible osciló entre el 1,3% del grupo socioeconómico y el 13,4% del confort de la vivienda, siendo de un 10,1% para el nivel de instrucción. En las personas mayores de 64 años, la proporción atribuible al nivel de instrucción fue mayor en las mujeres (14,9%) que en los varones (11,1%). En estos últimos, la proporción de la mortalidad atribuible fue de una magnitud similar para el confort de la vivienda (11,7%) y el grupo socioeconómico (10,1%), mientras que entre las mujeres mayores de 64 años, la mortalidad atribuible al grupo socioeconómico y al confort de la vivienda fue sensiblemente menor a la del nivel de instrucción.

4.2. Por grupos de edad

Más arriba se han analizado las desigualdades socioeconómicas distinguiendo las personas de 20 a 64 años de las de 65 y más años. Sin embargo, dentro de esos dos grandes grupos, la magnitud de las desigualdades cambia según la edad (tablas 9-16 y figuras 8-15).

4.2.1. Según el nivel de instrucción

En las mujeres, las mayores diferencias en la mortalidad según el nivel de instrucción se observaron en las de 20 a 34 años. En ellas la mortalidad aumentaba gradualmente al disminuir el nivel de instrucción, con especial magnitud en las mujeres sin estudios, que llegaba a ser 8,1 veces mayor que en las universitarias (tabla 9 y figura 8). El patrón de relación gradual entre la mortalidad y el nivel de instrucción también era evidente en las mayores de 64 años, en las que el exceso de mortalidad de las mujeres sin estudios respecto a las universitarias fue del 36% en las de 65 a 74 años y del 20% en las de 75 y más años. Sin embargo, en los otros grupos de edad no se evidenció ese gradiente de la mortalidad según el nivel de instrucción. En las de 25 a 44 años, sólo destaca una mortalidad dos veces mayor en las que no tenían estudios respecto a las universitarias; en las de 45 a

ikasketak zituztenekiko bi bider altuagoa zen; 45 urtetik 54 urtera bitartekoetan, aitzitik, lehen mailako ikasketak zituzten emakumezkoen hilkortasuna unibertsitateko ikasketak zituzten emakumezkoena baino baxuagoa zen; azkenik, 55 urtetik 64 urtera bitartekoetan, ez zen hilkortasunaren eta heziketa-mailaren arteko zerikusirik nabarmendu.

Gizonezkoetan, hilkortasunak pixkanaka-pixkanaka gora egiten zuen, adin-talde guztietan, heziketa-mailak behera egin ahala; eta ezberdintasun erlatiboen garrantzia murriztu egiten zen adinarekin (10. taula eta 9. irudia). Ikasketarik ez zutenak unibertsitateko ikasleekin konparatzean, 20 urtetik 34 urtera bitartekoetan hilkortasuna 8 bider altuagoa izan zen; 35 urtetik 44 urtera bitartekoetan 3,4 bider altuagoa; 45 urtetik 54 urtera bitartekoetan gehiegia %74koa zen; 65 urtetik 74 urtera bitartekoetan %25ekoa eta 75 urte eta hortik gorakoetan %16koa.

4.2.2. Etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera

Etxebizitzaren erosotasun-mailari dagokionez, emakumezkoen hilkortasunean ezberdintasunik handienak 35 urtetik 44 urtera bitartekoetan gertatu ziren, gradiente argia nabaritu baitzen eta erosotasun baxuko etxebizitzetan bizi zirenen hilkortasuna erosotasun altukoena baino 2,2 bider altuagoa izan zelako. 20 urtetik 34 urtera eta 45 urtetik 54 urtera bitarteko emakumezkoetan, erosotasun baxuko etxebizitzetan bizi zirenak gainerakoekin alderatuz, gehiegizko hilkortasuna %40 eta %50 artekoa zela azpimarragarria izan zen. 55 urtetik aurrera, hilkortasunaren eta etxebizitzaren erosotasunaren artean mailaz mailako erlazio bat bazegoela ikusi zen. Erosotasun-maila altukoak baxukoekin konparatzean ikusi zen, gehiegizko hilkortasuna 75 urte eta hortik gorakotan %21ekoa zela; eta 65 urtetik 74 urtera bitartekoetan %63koa (11. taula eta 10. irudia).

Gizonezkoen artean, etxebizitzaren erosotasun-maila eta hilkortasunaren arteko mailaz mailako erlazio bat ikusi zen, adin-talde guztietan. Ezberdintasunik handienak 35 urtetik 44 urtera bitartekoetan artean gertatu ziren: erosotasun baxuko etxebizitzetan bizi zirenen hilkortasuna erosotasun altukoetan bizi zirenenena baino 3,2 bider altuagoa izan zen. 65 urtetik beheragoko gizonezkoetan, arrazoi horren balioa 2tik hurbil egon zen. 65 urtetik 74 urtera bitartekoetan, erosotasun baxuko etxebizitzetan bizi zirenen gehiegizko hilkortasuna erosotasun altukoekiko %65ekoa izan zen; eta 75 urte eta hortik gorakoetan %16koa (12. taula eta 11. irudia).

4.2.3. Talde sozioekonomikoaren arabera

Etxetik kanpo lan egiten zuten emakumezkoen hilkortasuna ez zen talde sozioekonomikoarekin elkartu 65 urtetik beherako emezkumezkoetan, emaitzek esku-langileen hilkortasunean 20 urtetik 34 urtera bitarteko zuzendari lanpostua dutenekiko gehiegia dagoela aditzera eman arren. 64 urtetik gorako emakumezkoetan, aztertutako bi adin-taldeetan %10etik hurbil dagoen ge-

54 años, por el contrario, destacaba la menor mortalidad de las mujeres con estudios primarios respecto a las universitarias; finalmente, en las de 55 a 64 años no se evidenció una asociación entre la mortalidad y el nivel de instrucción.

En los varones, la mortalidad aumentaba gradualmente al disminuir el nivel de instrucción en todos los grupos de edad y la magnitud de las diferencias relativas disminuía con la edad (tabla 10 y figura 9). Al comparar a quienes no tenían estudios con los universitarios, en los de 20 a 34 años la mortalidad fue 8 veces mayor, en los de 35 a 44 años 3, 4 veces mayor, en los de 45 a 54 años el exceso era de un 74%, en los de 65 a 74 años de un 25% y en los de 75 y más años de un 16%.

4.2.2. Según el confort de la vivienda

En lo que respecta al confort de la vivienda, las mayores diferencias en la mortalidad de las mujeres se dieron en las de 35 a 44 años, en las que se observó un claro gradiente; además la mortalidad de las residentes en viviendas de confort bajo fue 2,2 veces mayor que en las de confort alto. En las mujeres de 20 a 34 años y de 45 a 54 años sólo destacaba el exceso de mortalidad de entre un 40 y un 50% de las residentes en viviendas de confort bajo respecto al resto. A partir de los 55 años se observó una relación gradual entre la mortalidad y el confort de la vivienda. Al comparar las de confort alto con las de confort bajo, el exceso de mortalidad iba del 21%, de las 75 y más años, al 63% de las de 65 a 74 años (tabla 11, figura 10).

Entre los varones, se observó una relación gradual entre el confort de la vivienda y la mortalidad en todos los grupos de edad. Las mayores diferencias fueron para los de 35 a 44 años: los residentes en viviendas de confort bajo tuvieron una mortalidad 3,2 veces mayor que los de confort alto. En los otros varones menores de 65 años, el valor de esa razón fue cercana a 2. En los de 65 a 74 años, el exceso de mortalidad de los de confort bajo respecto al alto era del 65%, y en los de 75 y más años del 16% (tabla 12, figura 11).

4.2.3. Según el grupo socioeconómico

La mortalidad de las mujeres trabajadoras fuera del hogar no se asoció al grupo socioeconómico en las de menos de 65 años, si bien los resultados sugieren la existencia de un exceso en la mortalidad de las trabajadoras manuales respecto a las directivas en las de 20 a 34 años. En las mayores de 64 años, en los dos grupos de edad estudiados se observó un exceso en la mortalidad

hiegizko hilkortasuna ikusi zen esku-langileetan zuzendaritza lanetan zebiltzanekiko (13. taula eta 12. irudia).

Lanean zeuden gizonezkoetan, ordea, hilkortasunaren eta talde sozioekonomikoaren artean gradiente argia zegoela ikusi zen, hilkortasuna altuagoa baitzen kategoría sozioekonomikoa behera egin ahala. Ezberdintasunen garrantziak behera egiten zuen adinarekin; hortaz, esku-langileak zuzendariak zirenekin konparatuz, hilkortasuna 3,3 bider altuagoa zen 20 urtetik 34 urtera bitartekoetan, eta %16ko beherada izaten zuen 75 urte eta hortik goragoetan (14. taula eta 13. irudia).

4.2.4. Lan-egoeraren arabera

65 urtetik beherako emakumezkoen lan-egoera aztertzean, adinaren arabera bi eredu ezberdin zeudela ikusi zen. 20 urtetik 44 urtera bitartekoetan, langabetuen hilkortasuna lana zeukaten emakumezkoena baino bi bider altuagoa zen. 45 urtetik 64 urtera bitarteko emakumezkoetan, ostera, ez zen ezberdintasun esanguratsurik nabaritu (15. taula eta 14. irudia).

65 urtetik beherako gizonezkoetan, berriz, langabetuek lana zutenak baino hilkortasun handiagoa izan zuten, adin-talde guztietan. Ezberdintasunik handienak 44 urtetik beherakoetan ikusi ziren, langabetuen hilkortasuna lana zutenena baino hiru bider altuagoa baitzen. 45 urtetik 54 urtera bitartekoetan, langabetuen hilkortasuna lana zutenena baino bikoitza baino gehiagokoa izan zen, eta 54 urte baino gehiago zuten gizonezkoetan, langabetuen gehiegizko hilkortasuna %38ra murriztu egin zen (16. taula eta 15. irudia).

4.3. Heriotza-kausak direla eta

Atal honetan, lehenengo eta behin zenbait heriotza-kausetarako heziketa-mailaren eta etxebizitzaren erosotasun-mailaren arabera desberdintasunak deskribatzen dira. Jarraian, sexua eta adin-talde bakoitza kontuan hartuz, sarrien gertatutako heriotza-kasuetan desberdintasun sozioekonomikoen garrantzia erlatibo baloratuko da.

4.3.1. Hiesa

Hiesak eragindako hilkortasunak desberdintasun erlatibo gehiago erakutsi zituen. 64 urtetik goragoko pertsonetan heriotza-kopurua eskasa izan zenez, azterketak 20 urtetik 64 urtera bitartekoak (17-18 taulak eta 16. irudia) kontuan hartu zituen. Gizonezkoen artean, gradiente sozioekonomikoa oso nabarmena zen aztertutako aldagai sozioekonomikoetan. Horrez gain, aipagarria da termino erlatiboetan neurtutako desberdintasunak duten garrantzia. Beraz, ikasketarik gabeko gizonezkoen hilkortasuna unibertsitateko tituludunena baino 27 bider altuagoa izan zen, langabezian zeudenena lana zutenena baino bederatzita bider altuagoa, eta erosotasun-maila baxuko etxebizitzetan bizi zirenen erosotasun-maila altukoena baino bost bider altuagoa.

de las trabajadoras manuales respecto a las directivas cercano al 10% (tabla 13, figura 12).

Por el contrario, en los varones trabajadores se observó un claro gradiente entre la mortalidad y el grupo socioeconómico, con mayor mortalidad a medida que se descendía en la categoría socioeconómica. La magnitud de las diferencias disminuía con la edad, de manera que al comparar los trabajadores manuales con los directivos, la mortalidad era 3,3 veces mayor en los de 20 a 34 años, y descendía hasta ser un 16% mayor en los de 75 y más años (tabla 14, figura 13).

4.2.4. Según la situación laboral

Al analizar la situación laboral en las mujeres menores de 65 años, se observaron dos patrones distintos según la edad. En las de 20 a 44 años, la mortalidad en las desempleadas fue dos veces mayor que en las que tenían trabajo, mientras que no se observaron diferencias significativas en las de 45 a 64 años (tabla 15, figura 14).

Por el contrario, entre los varones menores de 65 años los desempleados tuvieron una mayor mortalidad que los que tenían trabajo en todos los grupos de edad. Las mayores diferencias se observaron en los menores de 44 años, con una mortalidad cerca de tres veces mayor en los desempleados que en los empleados. En los de los de 45 a 54 años la mortalidad de los desempleados fue de más del doble que en quienes tenían trabajo, y en los mayores de 54 años, el exceso de mortalidad de los desempleados descendió al 38% (tabla 16, figura 15).

4.3. Por causas de defunción

En esta sección, se describen en primer lugar las desigualdades según el nivel de instrucción y el confort de la vivienda para ciertas causas de defunción. A continuación, se valora la importancia relativa de las desigualdades socioeconómicas en las causas de defunción más frecuentes en cada grupo de edad y sexo.

4.3.1. Sida

La mortalidad por sida mostró las mayores desigualdades relativas. Dado el escaso número de defunciones en las personas mayores de 64 años, el análisis se limitó a las de 20 a 64 años de edad (tablas 17-18 y figura 16). Entre los varones, el gradiente socioeconómico era muy acusado en las variables socioeconómicas estudiadas. Además, es de resaltar la gran magnitud de las desigualdades medidas en términos relativos. Así, los varones sin estudios tuvieron una mortalidad 27 veces mayor que los titulados universitarios, los desempleados nueve veces mayor que los ocupados, y los residentes en viviendas de confort bajo cerca de cinco veces mayor que los de confort alto.

